PASAIAKO UDALA
www.pasaia.eus

Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantza arautzailea
TESTU BATEGINA

Ordenanza reguladora de la instalación en la vía pública de terrazas y veladores
TEXTO REFUNDIDO

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 004300
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

UDALTZAINGOA
udaltzain@pasaia.net

T0401100

BERTSIOEN HISTORIA

- Jatorrizko ordenantza: Udalbatzak 2008/05/27an onartua eta 2008/08/13ko 154. GAOn argitaratua.
- 1. aldaketa: Udalbatzak 2009/02/2an onartua eta ordenantzaren testu osoa 2009/04/27ko 76. GAOn argitaratua.
- 2. aldaketa: Udalbatzak 2016/11/29an onartua eta 2017/02/9ko 28. GAOn argitaratua.
- 3. aldaketa: Udalbatzak 2017/04/25an onartua eta 2017/06/23ko 120. GAOn argitaratua.
- 4. aldaketa: Udalbatzak 2020/09/29an onartua eta 2020/10/9ko 194. GAOn argitaratua.
- 5. aldaketa: Udalbatzak 2022/04/26an onartua eta 2022/07/21ko 139. GAOn argitaratua.

HISTORIAL DE VERSIONES

- Ordenanza original: Aprobada en pleno de 27/05/2008 y publicada en el BOG n.º 154 de 13/08/2008.
- 1ª modificación: Aprobada en pleno de 2/02/2009 y publicado el texto íntegro en el BOG n.º 76 de 27/04/2009.
- 2ª modificación: Aprobada en pleno de 29/11/2016 y publicada en el BOG n.º 28 de 9/02/2017.
- 3ª modificación: Aprobada en pleno de 25/04/2017 y publicada en el BOG n.º 120 de 23/06/2017.
- 4ª modificación: Aprobada en pleno de 29/09/2020 y publicada en el BOG n.º 194 de 9/10/2020.
- 5ª mofidificación: Aprobada en pleno de 26/04/2022 y publicada en el BOG n.º 139 de 21/07/2022.

TESTU BATEGINA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

Atariko artikulua.

Generoa dela-eta inor ez diskriminatzearren, udal ordenantzetan, oro har, gaztelerako testuan genero femeninoa erabiliko da pertsonei buruz ari garela: herritarrak, bizilagunak, erabiltzaileak, eskatzaileak, titularrak edo beste edozein izen, eta horiekin batera doazen adjektiboak.

1. artikulua.- Aplikatu beharreko araudia.

Ordenantza hau eman da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49., 85., 139. eta 140. artikuluetan, 1986ko Toki Korporazioen Ondasunen Araudiaren 77. artikuluan eta 1986ko Toki Korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren

TEXTO REFUNDIDO

CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo preliminar.

Con el objetivo de no discriminar a ninguna persona por cuestión de género en la utilización del lenguaje de las ordenanzas municipales, con carácter general, en la versión en castellano, se atenderá a la utilización del género femenino para referirnos a las personas, ya sean ciudadanas, vecinas, usuarias, solicitantes, titulares o cualquier otro sustantivo o adjetivo que los acompañe.

Artículo 1. Normativa de aplicación.

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las facultades otorgadas por los artículos 49, 85, 139 y 140 de la Ley 7/1.985 Reguladora de las Bases del Régimen Local de 2 de abril, artículo 77 del Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales de 1986, artículo 41 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales de 1986, y el artículo

7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua emandako ahalmenez baliatuz.	17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
2. artikulua. Xedea.	Artículo 2. Objeto.
Ordenantza honen xedea da bide publikoan terrazak, mahaitxoak eta instalazio osagarri mugikorrak jartzeko araubide tekniko eta juridikoa ezartzea, horretarako baldintzak zehaztuz. Ordenantza honetan elementu finkoak ez dira arautzen.	Es objeto de la presente Ordenanza establecer el régimen técnico y jurídico para la instalación sobre la vía pública de terrazas y veladores e instalaciones complementarias de carácter móvil, especificando las condiciones para ello. En esta Ordenanza no se regulan los elementos fijos.
3. artikulua. Definizioa.	Artículo 3. Definición.
Aurreko artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako, mahaitxoa da mahai batek eta lau aulkik (salbuespenez, gehienez bost aulki) osatzen duten multzoa. Terraza da ostalaritzako jarduera baten aldi baterako osagarri diren mahaitxoen eta instalazio mugikorren multzoa, jarduera gauzatzeko udal-baimena badu.	A efectos de lo señalado en el artículo anterior, se entiende como velador al conjunto que forma una mesa y cuatro sillas, excepcionalmente hasta cinco sillas. Se entiende como terraza al conjunto de veladores e instalaciones móviles que sirvan de complemento temporal a una actividad del ramo de la hostelería que disponga de autorización municipal para el ejercicio de su actividad.
Ordenantza hau terraza eta mahaitxoei aplikatzeaz gain, beste hauei ere aplikatuko zaie: bide publikoan jartzen den beste edozein objektu edo makina, hala nola makina automatikoak, haur-jolasak, jardueraren elementu osagarriak (toldoak, alboetako babesak, etab.), espazio publikoa behar dutenak beren funtzionamendurako, haiek aldi baterako edo iraunkorrak diren alde batera utzita.	Además de a las terrazas y veladores, se aplicará la presente Ordenanza a cualquier tipo de objeto o máquina, tales como máquinas expendedora, juegos infantiles, elementos auxiliares de la actividad (toldos, protecciones laterales, toneles, mesas altas, etc), que ocupen espacio público o necesiten de él para su funcionamiento, con independencia de su carácter temporal o permanente.
Debekatuta dago bigarren puntuan adierazitakoez bestelako elementuak instalatzea, hala nola hozkailuak, mostradoreak, armairuak, bozgorailu-bafleak, etab.	Queda prohibida la instalación de otros elementos distintos de los señalados en el punto segundo, tales como refrigeradores, mostradores, armarios, altavoces-bafles, etc.
4. artikulua.- Aplikazioa.	Artículo 4. Aplicación.
Ordenantza hau udalerriko espazio guztiei (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.) aplikatuko zaie, baldin eta erabilera publikokoak badira, titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan. Erabilera publikokoa izatearen baldintza egitatezko egoerak eta indarrean dagoen planeamenduko zehaztapenak aplikatzeak zehaztuko du.	La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) del municipio que siendo de uso público, sean de titularidad pública o privada. Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.
5. artikulua. Aurretiazko lizentzia eskuratzeko beharra.	Artículo 5. Necesidad de obtención de licencia previa.
Titulartasun publiko nahiz pribatuko espazio publikoetan dauden instalazio horiek erabilera komun bereziaren kategoria juridikoa dute	Las citadas instalaciones en espacios públicos, tanto de titularidad pública como privada, tienen la categoría jurídica de uso

eta, kasu bakoitzean, aldez aurreko udal-lizentzia behar dute, Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango dena.	común especial y requieren para su ejercicio, en cada caso, licencia municipal previa que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente Ordenanza.
6. artikulua. Aurretiazko lizentzia eskuratzeko beharretik kanpo uztea. Ordenantza honek arautzen duen lizentzia eskuratzeko beharra ez zaie aplikatuko 3. artikuluan adierazitako definizioan sartuta egon arren, jai-ekitaldi herrikoien ondorioz aldi baterako jardueretan dauden instalazioei, udal-organo eskudunak ezarritako egutegiaren eta moduen barruan.	Artículo 6. Exclusión de la necesidad de licencia previa. La necesidad de obtener la licencia regulada por la presente Ordenanza no será de aplicación a aquellas instalaciones que, aun incluidas en la definición formulada en el artículo 3, se encuentren en actividades temporales ejercidas con motivo de actos festivos populares, dentro del calendario y formas establecidas por el Órgano Municipal competente.
7. artikulua. Lizentzia ukatzeko arrazoiak. Salbuespenak. Mugak. 1. Udal organo eskudunak terrazak instalatzeko baimena uka dezake, honako kasu hauetan: a) Segurtasuna kaltetzea (ikuspena gutxitzea, gidariek arreta galtzea, etab.) edo oinezkoak, ezinduak, haur-aulkiak eta abar pasatzea nabarmen zailtzea. b) Alboko establezimenduei kalte egitea (erakusleihoak ixtea, establezimenduaren sarbidea nabarmen murriztea, ebakuazio-arazoak, etab.). c) Inguruarekin formalki desegokia edo bat ez datorrena izatea, edo hiri-paisaia behar bezala irakurtzea zailtzea. Era berean, terrazak eta mahaitxoak jartzea debekatu ahal izango da bide-segurtasuneko edo herri-lanetako arrazoiengatik, edo antzeko arrazoiengatik. Halaber, salbuespenezko kasuetan, udalak banan-banan aztertuko ditu eskaeran agertzen diren eta argudiatzen diren inguruabarrak, eta ezohiko eta arrazoitutako lizentzia eman ahal izango du.	Artículo 7. Motivos de la denegación de la licencia. Excepciones. Limitaciones. 1. El Órgano Municipal competente podrá no autorizar la instalación de terrazas en cualquiera de los supuestos siguientes: a) Que suponga perjuicio para la seguridad (disminución de la visibilidad, distracción de la conductor, etc.) o dificulte sensiblemente el paso de peatones, personas discapacitadas, sillas infantiles, etc. b) Que suponga un perjuicio para los establecimientos colindantes (cierre de escaparates, reducción considerable del acceso al establecimiento, problemas de evacuación, etc.). c) Que resulte formalmente inadecuada o discordante con su entorno, o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano. Podrá asimismo prohibirse la instalación de terrazas y veladores por razones de seguridad viaria, obras públicas u otras circunstancias similares. Así mismo, en casos excepcionales, el Ayuntamiento estudiará de forma individual las circunstancias que concurran y se argumenten en la solicitud, pudiendo de forma extraordinaria y motivada conceder la oportuna licencia.
II. KAPITULUA INSTALATZEKO BALDINTZAK 8. artikulua. Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloietako instalazioak. 1. Espaloian gutxienez 2 metroko zabalera librea geratuko da.	CAPITULO II. CONDICIONES DE INSTALACIÓN Artículo 8. Instalaciones en aceras de calles con circulación rodada. 1. La anchura mínima de la acera que tiene que quedar libre será de 2 metros.

2. Mahaitxoak ondoko finketarako sarbide librea eta oinezkoen arintasuna ez eragozteko edo zailtzeko moduan jarriko dira, eta ezin izango dira jarri ez oinezkoentzako pasabideen aurrean, ez jendearentzat zabalik dauden lokaletako edo atarietako larrialdi-irteeren aurrean.	2. Los veladores se colocarán de manera que no impidan o dificulten en ningún momento el libre acceso a las fincas colindantes así como la fluidez de las peatones, no pudiendo colocarse ni frente a pasos de peatones ni salidas de emergencia de locales de pública concurrencia o de portales.
3. Terrazaren luzerak, alboetako babesak barne, ez du gaindituko jarduera nagusiaren euskarri den establezimenduaren fatxadaren luzera, salbu eta Udalak uste badu ez zaiela kalterik eragiten mugakideei, eta mugakideen idatzizko baimena badu.	3. El desarrollo longitudinal máximo de la terraza, incluidas protecciones laterales, no rebasará la longitud de la fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, salvo cuando el Ayuntamiento considere que no se ocasionan perjuicios a las colindantes y cuente con autorización por escrito de éstas.
4. Ahal dela, mahaitxoak luzetara jarriko dira espaloiaren ertzaren ondoan, espaloitik gutxienez 50 cm-ra, aparkatuta dauden ibilgailuetako bidaiarien sarrera eta irteera ez oztopatzeko, salbu eta babes-hesirik badago edo aparkatzea debekatuta badago; kasu horretan, tartea barruko proiekzio bertikaletik gutxienez hamar (10) zentimetrokoa izango da.	4. Con carácter preferente los veladores se dispondrán longitudinalmente junto al borde de la acera y separadas de este al menos 50 cm, para no entorpecer la entrada y salida de las pasajeras de los vehículos estacionados, salvo que exista valla de protección o esté prohibido el estacionamiento, en cuyo caso la separación será de al menos diez (10) centímetros de su proyección vertical interior.
5. Espaloiak gutxienez sei (6) metroko zabalera duenean, hiru (3) metroko oinezkoentzako ibilbide iraunkorra bermatu beharko da, oztoporik gabea.	5. Cuando la acera tenga un ancho mínimo de seis (6) metros, deberá quedar garantizado un itinerario peatonal permanente, libre de obstáculos, de tres (3) metros de amplitud.
6. Mahaitxoa establezimenduaren fatxadaren ondoan kokatzea komeni denean, baimena eman ahal izango da, lizentziari buruzko txostena egiteko eskumena duen teknikariak proposatzen dituen diseinu eta baldintzen arabera.	6. Cuando fuera conveniente la ubicación del velador junto a la fachada del establecimiento se podrá autorizar esta disposición de acuerdo con el diseño y condiciones que proponga el técnico competente para informar sobre la concesión de la licencia.
Mahaien eta aulkien modulu nagusia (2,00 x 2,00 metro) jartzea ezinezkoa den espaloien kasuan, erabilgarri dagoen espaziora hobeto egokitzeko, upelak eta tabureteak jarri ahal izango dira, edo modulu nagusian aldaketak egin ahal izango dira; hau da, modulu txikiagoak jartzeko aukera izango da, mahai 1 eta 3 aulki (2,00 m x 1,35 m) edo mahai bat eta 2 aulki (2,00 m x 0,85 m), betiere oinezkoentzako pasabidea gutxienez 2 metrokoa bada, artikulu honetako 1. puntuan adierazten den bezala.	En el caso de aceras en las que no es posible la colocación del módulo principal de mesas y sillas (2,00 x 2,00 metros), con el fin de adaptarse mejor al espacio disponible, se podrá permitir la colocación de barriles y taburetes, o bien variaciones del módulo principal; en estos casos, se permitirá la instalación de módulos compuestos por 1 mesa y 3 sillas (2,00 m x 1’35 m) o módulos de 1 mesa y 2 sillas (2,00 m x 0’85 m), siempre que se respete el paso peatonal mínimo de 2 metros como así se refiere en este artículo, punto 1.
9. artikulua. Oinezkoentzako edo partekatutako kaleetako instalazioak.	Artículo 9. Instalaciones en calles de coexistencia o peatonales.
1. Ordenantza aplikatzearen ondorioetarako, partekatutako kaleak edo oinezkoentzako kaleak izango dira, ofizialak izateaz gain,	1. A los efectos de aplicación de la Ordenanza tendrán la consideración de calles de coexistencia o peatonales, aquéllas que,

fisikoki halakotzat eratuta daudenak, hau da, espaloirik eta galtzadarik gabekoak.	además de serlo con carácter oficial, estén físicamente configuradas como tales, es decir, sin aceras ni calzadas.
2. Gutxienez bost (5) metroko zabalera duen partekatutako edo oinezkoentzako kale batean soilik onartuko dira terrazak eta mahaitxoak, eta oinezkoentzat gutxienez 2 metro zabaleko oztoporik gabeko ibilbide bat uzteko moduan antolatuta egongo dira.	2. Solo se admitirán terrazas y veladores en una calle de coexistencia o peatonal de cinco (5) metros de ancho mínimo, y estarán dispuestas de forma que dejen un itinerario peatonal libre de obstáculos, con anchura mínima de dos (2) metros.
3. Kale partekatuetan edo oinezkoentzako kaleetan, hamar (10) metroko zabalera edo handiagoa dutenean, oinezkoentzako ibilbide iraunkor bat bermatuko da, oztoporik gabea, gutxienez hiru (3) metroko zabalerarekin, fatxadako lerrokadura bakoitzean, edo erdiko bat, hiri-altzarien baldintzen arabera.	3. En las calles de coexistencia o peatonales de anchura igual o superior a diez (10) metros se garantizará un itinerario peatonal permanente, libre de cualquier obstáculo, con ancho no inferior a tres (3) metros, en cada alineación de fachada, o uno central, según las condiciones del mobiliario urbano.
4. Instalazioaren gehieneko garapenak ez du gainditu ko jarduera nagusiaren euskarri den establezimenduaren fatxadaren luzera, haren mugakideek idatzizko baimena eman ezean, eta ondoko etxebizitza eta lokaletarako pasabidea bermatu beharko du, larrialdietarako irteerak barne.	4. El desarrollo máximo de la instalación no rebasará la longitud de la fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, salvo autorización por escrito de los colindantes de éste, debiendo garantizar el paso a las viviendas y locales colindantes, incluidas las salidas de emergencia.
5. Oinezkoentzako guneetan, mahaiak eta mahaitxoak ezingo dira jarri ibilgailuen zirkulazioa baimenduta dagoen ordutegian, salbu eta zirkulazioa oztopatzen ez badute.	5. En zonas peatonales, los veladores no se podrán instalar durante el horario en que esté permitida la circulación de vehículos, salvo que no interfiera a la misma.
6. Eguneko edozein ordutan, baimendutako ibilgailu batek edo larrialdietako ibilgailu batek edo baimendutako ordutegian zamalanak egin behar dituztenek oinezkoentzako gunean zirkulatu behar badute eta terrazako elementuek galarazten edo zailtzen badiote, elementu horien titularrak berehala kendu beharko ditu, ibilgailuaren maniobra errazteko.	6. Si a cualquier hora del día un vehículo autorizado o de urgencias o los que tengan que realizar carga y descarga en horario autorizado tuviera necesidad de circular por la zona peatonal y los diferentes elementos de la terraza se lo impidieran o dificultaran, la titular de éstas deberá proceder a la retirada inmediata de las mismas a fin de facilitar la maniobra del vehículo.
Halaber, eta elementu osagarriak kendu beharko dira Udalak antolatutako edo antolatu gabeko kirol- edo kultura-ekitaldiak igarotzea aurreikusita dagoenean, baldin eta behar bezala baimenduta badaude.	También deberán retirarse los veladores y elementos auxiliares cuando esté previsto el paso de actos o eventos deportivos o culturales, organizados o no por el Ayuntamiento, y que hayan sido debidamente autorizados.
10. artikulua. Plaza eta gune libreetako instalazioak.	Artículo 10. Instalaciones en plazas y espacios libres.
1. Plaza eta gune libreetan mahaitxoak eta terrazak jartzeko eskabideak kasu zehatz bakoitzaren berezitasunen arabera ebatziko dira, honako muga orokor hauen arabera:	1. Las solicitudes para la instalación de veladores y terrazas en plazas y espacios libres se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción a las siguientes limitaciones generales:
a) Lorategiz hornitutako eremuak, jolas-esparruak eta atsedenlekuak errespetatuko dira. Ez da eragotziko oinezkoak arin ibiltzea.	a) Se respetarán las zonas ajardinadas, zonas de juegos y descanso existentes. No se impedirá la fluidez del paso de las

	viandantes.
b) Baimendutako mahaitxoek ez dute espazioaren % 35 gainditu ko, lorategiak, jolaslekuak eta bestelako hiri-altzariak kenduta.	b) El espacio ocupado por los veladores autorizados no superará el 35% del espacio, descontado las zonas ajardinadas, de juego y otro mobiliario urbano.
1. eranskinean udalerriko plazen azaleraren % 35aren kalkulua zehazten da.	En el anexo 1 se detalla el cálculo del 35% de la superficie plazas del municipio.
c) Udalerriko plazetan terrazak eta mahaitxoak dagokien establezimenduaren fatxadaren ondoan jarriko dira. Fatxadaren ondoko eremua pribatua bada, jabeen berariazko baimena izan beharko dute.	c) En las plazas del municipio, se colocarán las terrazas y veladores junto a las fachadas de los establecimientos a los que pertenezcan. En el caso de que esos espacios junto a fachada sean de titularidad privada, deberán tener la autorización expresa de los propietarios.
2. Espazio berean okupazio-eskaera bat baino gehiago egonez gero, establezimenduek okupatu beharreko azalera lokal horiek publikoari esleituta duten espazioaren proportzioan banatuko da.	2. En caso de concurrencia de diversas solicitudes de ocupación sobre un mismo espacio, la superficie a ocupar por los distintos establecimientos, se distribuirá proporcionalmente al espacio que dichos locales tengan asignado al público.
3. Okupazioak ezin izango du inolaz ere Udalak baimendutako okupazio-azalera gainditu. Aldameneko establezimenduen idatzizko baimena izan beharko du haien fatxada okupatu nahi duenean.	3. La ocupación no podrá en ningún caso sobrepasar la superficie a ocupar autorizada por el Ayuntamiento. Deberá contar con la autorización por escrito de los establecimientos colindantes cuando pretenda ocupar fachada de los mismos.
4. Gune horietan bide publikoa okupatzeko lizentzia ordenantza honetako 3. artikuluan definitutako lokalen titularrei bakarrik eman ahal izango zaie, baldin eta lokal horien aurrealdeek gune horietara ematen badute.	4. Únicamente podrá concederse licencia de ocupación de la vía pública para estos espacios a las titulares de los locales definidos en el artículo 3 de la presente ordenanza y cuyos frentes den a los mismos.
5. Baimendutako ordutegiaren barruan udal ibilgailu batek edo larrialdietako ibilgailu batek plazatik ibiltzeko beharra izango balu, eta terraza edo mahaitxoren batek eragotzi edo zailduko balio; lizentziaren titularrak berehala kendu beharko ditu mahaiak eta aulkiak, zirkulazioa edo maniobra erraztearren.	5. Si a cualquier hora del día durante el horario permitido, un vehículo municipal , emergencia o de urgencias tuviera necesidad de circular por la plaza, y algún velador o terraza se lo impidiera o dificultara, la titular de de la licencia deberá proceder a la retirada inmediata de las mesas y sillas a fin de facilitar la circulación o maniobra necesaria.
11. artikulua. Instalazioen materialak.	Artículo 11. Materiales de las instalaciones.
1. Hiri-altzariek (mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, toldoak) nolabaiteko harmonia eta estetika izan dezaten, honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:	1. Para dar cierta armonía y estética al mobiliario urbano (mesas, sillas, sombrillas, toldos), éste deberá tener las siguientes características:
a) Materialak: Mahai eta aulkien egiturari dagokionez, batez ere aluminioa erabiliko da, eta beste material batzuekin konbinatu ahal izango da, hala nola, zur tratatuarekin, biniloarekin, plastikoarekin eta abarrekin. Hirigune historikoetan eta interes bereziko	a) Materiales: Se utilizará, en lo que a la estructura de mesas y sillas se refiere, preferentemente el aluminio, pudiendo combinarse con otros materiales como madera tratada, vinilo, plástico, etc. En los cascos históricos y en zonas de interés

guneetan tokiarekin bat datozen materialak erabiliko dira.	especial se tenderá a utilizar materiales acordes con el lugar.
b) Berariaz debekatzen dira aurretik deskribatutako baldintzak edo materialak betetzen ez dituzten publizitate-terraza estandarrak.	b) Se prohíben expresamente las terrazas estándar de publicidad que incumplan las condiciones o materiales descritos anteriormente.
c) Koloreak: Ahal dela, tonu neutroak erabiliko dira (zuriak, kremak, metalizatuak), eta ezin izango da kolore deigarri edo bizirik erabili.	c) Colores: Se procurará utilizar tonos neutros (blancos, cremas, metalizados) no pudiéndose utilizar colores llamativos o chillones.
d) Altzariak egoera onean mantendu behar dira beti.	d) El mobiliario se deberá mantener siempre en buen estado de conservación.
12. artikulua. Egituren ezaugarriak. Arkupe erako egiturak, isurialde bakarreko edo biko toldoa dutenak. Materialak.	Artículo 12. Características de las estructuras. Estructuras tipo pórtico con toldo a una o dos aguas. Materiales.
Toldoa lonazko edo oihalezko estalkia da, terraza kokatzeko baimendutako azaleraren gainean jartzen dena. Kasu horretan, ainguratuta ez dagoen eta mugigarria den estaldura oro arautzen da.	Se denomina toldo a la cubierta de lona o tela que se coloca sobre la superficie autorizada para la ubicación de la terraza. En este caso se regula todo cubrimiento que no está anclado y que es movible.
1. Baimendutako metro koadroko azalera estaliko du gehienez, eta ordenantzan oinezkoen zirkulazio libre eta segururako jasota dagoen erabilera-espazioa bermatzeko baldintzak beteko ditu. Beheko ertza 2,20 m-tik gora geratuko da. Irisgarritasuna bermatzearren.	1. Cubrirá como máximo el área en metros cuadrados autorizada y cumplirá los requisitos de colocación en garantía del espacio de uso para la libre y segura circulación de personas viandantes contenido en la ordenanza, superando su borde inferior la altura de 2,20 m. En aras de garantizar la accesibilidad.
2. Bi euste-puntu egonkor eta seguru bakarrik izango ditu, bide publikora ainguratu gabeak, eta horiek mugigarriak izango dira, beharrezkotzat jotzen denean kentzeko.	2. Tendrá solo dos puntos de apoyo estables y seguros, no anclados a la vía pública y deberán ser móviles para su retirada cuando así se estime necesario.
3. Baldintza estetikoak: material eta kolore neutroak erabiliko dira, eta hiri-inguruneakin bat etorriko dira. Ezin da publizitaterik jarri, establezimenduaren izena izan ezik.	3. Las condiciones estéticas se definirán por materiales y colores neutros y no deben ser discordantes con el entorno urbano. No se permite publicidad o reclamos exceptuando el nombre del establecimiento.
13. artikulua. Estalkien elementu osagarriak. Haizea gelditzekoak, etab.	Artículo 13. Elementos auxiliares a las cubriciones. Paravientos, etc.
1. Okupatutako espazioa manparek edo loreontziek mugatu ahal izango dute, eta horiek gehienez 1,50 metroko altuera eta 0,30 metroko zabalera izango dituzte.	1. El espacio ocupado podrá ser delimitado por mamparas o jardineras con una altura no inferior a 1 metro y no superior a 1,50 metros y una anchura máxima de 0,30 metros.
2. Manparak opakoak edo zeharrargiak izango dira, eta ez dute ertzik edo ebakitzailerik izango. Baimendutako okupazio-eremua bi aldetan mugatu ahal izango da.	2. Las mamparas serán de color opaco o translúcido sin elementos con aristas o cortantes. Se podrá delimitar el espacio autorizado de ocupación en dos lados.

3. Terrazaren okupazioan zehar zoladurara ainguratu gabeko loreontzi edo manpara mugikorren lerro batean baimendu ahal izango dira babesak, ibilgailuen zirkulazioa, bizikletak barne, espaloiaren zintarriaren ondotik igarotzen den kasuetan. Gehienez ere 0,30 metroko zabalera eta 1,50 metroko altuera izango dute. Baimendutako espazioa mugatzen duten alboetako babesak jarri ahal izango dira, baldin eta ez badira arriskutsuak oinezkoentzat, eta bide publikoan kalterik edo aldaketarik eragiten ez badute.	3. Las protecciones se podrán autorizar en una línea de jardineras o mamparas móviles no ancladas al pavimento a lo largo de la ocupación de la terraza, en los casos en los que la circulación de vehículos, bicicletas incluidas, transite junto al bordillo de la acera. Serán de una anchura máxima de 0,30 metros y una altura máxima de 1,50 metros. Se podrán colocar protecciones laterales que delimiten el espacio autorizado, siempre y cuando no supongan un riesgo para quienes transitan, ni daño o alteración en la vía pública.
Irisgarritasuna bermatze aldera, 2,20 metrotik beherako altueran dagoen edozein elementu finko edo mugikor lurreraino luzatuko da, oinplanoko proiekziorik handienarekin.	En aras de garantizar la accesibilidad, cualquier elemento fijo o móvil situado a una altura inferior a 2,20 metros, se prolongará hasta el suelo con toda la mayor proyección en planta.
4. Manparak terrazaren alboetan jarri ahal izango dira, haizetik babesteko, betiere egunero desmuntatzen badira eta establezimenduaren barrualdera biltzen badira. Zoladurari inolako ainguraketarik egin gabe jarriko dira, eta gehienez 1,50 metroko altuera izango dute. Opakoak, zeharrargiak edo gardenak izan daitezke. Gardenak badira, 20 cm-ko zabalerako bi banda seinaleztatzaile horizontal izango dituzte 1,50 metroko altueran, eta 0,90 metroko altueran beheko ertzetik lurreraino neurtuta, ikusmen-urritasunak dituzten pertsonek ikusteko moduan jartzeko.	4. Las mamparas se podrán colocar en los laterales de la terraza para la protección del viento siempre que se desmonten y se recojan diariamente al interior del establecimiento. Se colocarán sin ningún tipo de anclajes al pavimento y serán de una altura máxima de 1,50 metros. Podrán ser opacas, translúcidas o transparentes. En el caso de ser transparentes, dispondrán de dos bandas señalizadoras horizontales de una anchura de 20 cm colocadas a una altura de 1,50 metros y 0,90 metros medido desde su borde inferior hasta el suelo, para hacerlo perceptible a las personas con deficiencias visuales.
5. Altzarietan, toldoetan, eguzkitakoetan, haize-babesetan eta/edo manparetan ezin da publizitaterik egin, establezimenduaren izena izan ezik.	5. En el mobiliario, toldos, sombrillas, cortavientos y/o mamparas, no se permite publicidad o reclamos exceptuando el nombre del establecimiento.
6. Ez da kablerik onartzen, ez airez, ez zuhaitzetatik, terrazara energia elektrikoa garraiatzeko kableak barne.	6. No se admiten cables ni por aire ni en el arbolado, incluidos los del transporte de energía eléctrica hasta la terraza.
7. Estalki edo toldoren baten azpian instalatzen diren berogailu elektriko homologatuak baimendu ahal izango dira. Toldoan finkatuta ez badaude, ezin izango dira bide publikoan egon establezimendua itxita dagoenean.	7. Se podrán autorizar estufas eléctricas homologadas que se instalen bajo alguna cubierta o toldo. Si no están fijas al toldo, no podrán permanecer en la vía pública cuando el establecimiento esté cerrado.
8. Berokuntza edo klimatizazio-sistemen ezarpena aurkezten diren proposamenetan jaso beharko da, eta aplikatzekoa den araudi teknikoa betetzen dela justifikatu beharko da. Ezin izango dira terrazarako baimendutako espaziotik kanpo kokatu. Instalazio horiek ezingo dute inola ere ibilbide irisgarria hartu.	8. La incorporación de sistemas de calefacción o climatización deberá reflejarse en las propuestas que se presenten, justificando el cumplimiento de la reglamentación técnica de aplicación. No podrán emplazarse fuera del espacio autorizado para la terraza. En ningún caso estas instalaciones podrán invadir el itinerario accesible.

9. Terrazak, eta elementu osagarriak instalatzerakoan, kontuan hartuko dira irisgarritasun unibertsala bermatzeko udal honek onartutako arauak eta planak. Era berean, nahitaez bete beharko dira Eusko Jaurlaritzaren 20/1997 Irisgarritasunari buruzko Legean eta 68/2000 Dekretuaren II. eranskinean jasotzen diren arauak eta baldintzak.

Berogailu-sistema bat badago, ABC motako balio anitzeko hautsezko su-itzalgailu bat izango da, 21.a-113B eraginkortasuna duena, 15 metro baino gutxiagora eta erraz iristeko moduko leku batean.

14. artikulua. Estaldurak jartzea eta kokatzea:

Arau orokor gisa, toldoa eta haizea gelditzekoak dituzten egiturak kokatzeko baimena emateko baldintzak ordenantza honen 7., 8., 9. eta 10. artikuluek arautuko dituzte. Banaka aztertuko da estaldura mota egokiena, terrazak kokatuta dauden eremuak eta trafikoaren dentsitatea kontuan hartuta.

1. Instalazioak ezin izango du gainditu dagoen eraikinaren beheko solairuko sabaiari dagokion altuera, lehen solairuan dauden etxebizitzei kalterik eragin ez diezaien.

2. Estaldurako ezein elementuk ezin izango du terrazarako baimendutako eremuaren proiekzio horizontala gainditu lurzoruan.

3. Terrazetan eta horien ondoan ezingo da produkturik edo materialik biltegiratu edo pilatu (kuboak, orgak, plataformak, eguzkitakoen oinarriak, etab.), ezta instalazioetako berezko hondakinik ere, arrazoi estetikoengatik zein higiene-arrazoiengatik.

4. Irisgarritasun unibertsalaren printzipioa aplikatuz, ostalaritzako terrazek irisgarriak eta erabilgarriak izan beharko dute pertsona guztientzat. Era berean, hautemateko modukoak izango dira, eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonei arriskua eragin diezaiekeen edozein elementu edo egoera saihestuko da.

5. Fatxadei lotutako edozein elementu jartzeko baimena (esaterako, toldoak eta apalak) hirigintzako erregulazioaren mende egongo da.

6. Baimendutako ordutegiaren barruan udal ibilgailu batek edo larrialdietako ibilgailu batek plazatik ibiltzeko beharra izango balu, eta toldo edo manpara batek eragotzi edo zailduko balio; lizentziaren titularrak berehala

9. Se tendrá en cuenta en la instalación de terrazas, veladores y elementos auxiliares las normas y planes referentes a garantizar la accesibilidad universal aprobados por este Ayuntamiento. Así mismo, serán de obligado cumplimiento las normas y condiciones que se recogen en la Ley de Accesibilidad 20/1997 del Gobierno Vasco, así como el anexo II del Decreto 68/2000.

En el caso de que haya un sistema de estufas, se dispondrá de un extintor de Polvo Polivalente tipo ABC y eficacia 21.ª-113B, a menos de 15 metros de distancia y en un lugar fácilmente accesible.

Artículo 14. Colocación y ubicación de cubrimientos:

Como norma general, las condiciones para la autorización de ubicación de estructuras con toldo y paravientos se regirán por los artículos 7, 8, 9 y 10 de la presente ordenanza. Se estudiará individualmente el tipo de cubrimiento más adecuado atendiendo a las zonas en las que estén situadas las terrazas y la densidad del tráfico.

1. La instalación no podrá superar en altura a la que corresponda al techo de la planta baja del edificio frente al que se sitúe, para que no cause perjuicio a las viviendas situadas en la primera planta.

2. Ningún elemento del cubrimiento podrá sobrepasar en el suelo la proyección horizontal de la zona autorizada para la terraza.

3. No se permitirá almacenar o apilar productos o materiales en las terrazas ni junto a ellas (cubos, carros, plataformas, bases de sombrillas, etc), así como residuos propios de las instalaciones, tanto por razones estéticas como de higiene.

4. En aplicación del principio de accesibilidad universal, las terrazas de hostelería deberán ser accesibles y utilizables a todas las personas. Asimismo deberán ser detectables, evitando cualquier elemento o situación que pueda generar peligro a las personas con discapacidad visual.

5. La autorización de cualquier elemento sujeto a las fachadas como toldos y repisas, se someterá a la regulación urbanística.

6. Si a cualquier hora del día durante el horario permitido, un vehículo municipal , emergencia o de urgencias tuviera necesidad de circular por la plaza, y algún toldo o mampara se lo impidiera o dificultara, la titular

kendu beharko ditu toldoak, zirkulazioa edo maniobra erraztearren.

de la licencia deberá proceder a la retirada inmediata de los toldos a fin de facilitar la circulación o maniobra necesaria.

III. KAPITULUA ARAUBIDE JURIDIKOA

CAPITULO III. RÉGIMEN JURÍDICO

15. artikulua. Lizentzia-eskaera.

Artículo 15. Solicitud de licencia.

Lizentzia-eskaera Erregistro Orokorrean aurkeztuko da, honako agiri hauekin batera:

La solicitud será presentada en el Registro General, acompañada de los siguientes documentos:

1. Alkatetzari zuzendutako eskera, honako datu hauek jasoko dituena:
— Eskatzailearen izena eta abizenak.
— Norberaren datuak: helbidea, telefonoa eta nortasun-agiria.
— Jardueraren izena eta kokapena.
— Jardueraren datuak (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, IFZ, etab.).
— Jarri nahi den instalazioaren epea eta mahai eta aulki kopurua, eta eguzkitakoak eta elementu finkoak edo ez hain finkoak jarriko diren edo ez.

1. Solicitud dirigida a la Alcaldía, en la que se hará constar:
— Nombre y apellidos de la solicitante.
— Datos personales relativos a domicilio, teléfono y Documento de Identidad.
— Nombre y emplazamiento de la actividad.
— Datos de la actividad (Impuesto de Actividades Económicas, CIF, etc.).
— Plazo de la instalación pretendida y número de mesas y sillas, así como si se instalarán o no sombrillas, y elementos mas o menos fijos.

Interesdunak erabakitzen badu altzariak lokalaren barruan ez jasotzea, bide publikoan pilatuta uzteko baimena eskatu beharko du, eta plano batean adieraziko zaio non utz ditzakeen.

Si la interesada deseara optar por no recoger el mobiliario en el interior del local, deberá solicitar autorización para apilarlos en la vía pública y se les señalará en un plano el lugar para ello.

2. Jardueran aritzeko udal-baimena duela egiaztatzen duen agiria (jarduera- eta instalazio-lizentzia eta irekiera-lizentzia). Nolanahi ere, terraza instalatzeko lizentziarako nahitaezkoa da aldez aurretik dagokion baimena lortzea ostalaritza-jarduera garatzeko.

